

FR. MIGELEK DARABILTZAN ZENBAIT HITZEZ

Donostia, 1991-VI-28

Frantzisko Ondarra

Fr. Migelen 19 testu ezagutzen ditugu, 1778. eta 1792. urteen bitartean idatziak izan zirenak. Horietako zaharrena Aita Villasanteren omenaldi libururako prestatzentz ari ginela, irakurri genituen berriz ere testu guztiak. Eta txosten bat paratu behar genuela ta, hautatu genituen horietan aurkitzen genituen zenbait hitz, euskal lexikorako jakingarri gerta litezkeela uste genituenak. Hautaketa egitean, puntu hauiek izan genituen kontutan: 1. Larramendirekin zer ikustekorik bazuten; 2. Aldaera edo adiera berriren bat eskaintzen ote zuten; 3. Antzinatasuna; 4. Etab. Alfabetoz antolaturik ematen ditugu.

Baina, nor da Fr. Migel (de S. Francisco)? Munitibarren jaio zen karmeldar fraide bat: Munitibarren 1745. urtean jaio eta Corellan 1765.ean fraide bilakatu. Markinan ageri da 1778. urtean eta bertan bizi eta egiten du lan 1808. arte, data horretan komentutik jaurtikia izan zela. Mendatan hil zen, baina ez dakigu zein urtetan: bakarrik dakiguna da 1815.ean ez zegoela bizien artean. Beraren berri labur bat eman genuen gure Sarrera hitzaldian (Ik. *Euskera*, XXVI (1981-2), 635. or).

ZENBAIT HITZ

ainzat. Otxoa de Arinek erabiltzen du, baina XVIII. mendeko beste idazleetan ez omen da ageri hitz hau (*Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v.). Behin aurkitu dugu gure testuetan, eta ‘halakotzat’ esan nahi du:

- (1) Motibo oneecaiti esatendeuscu San Pablo Apostolubac; Jesu Christoren Pasiñoe, ta eriyotza Prediquetia zala Judegubenzat escandaluba, eta Gentilenzat disparatia; *ainzat* arceebelaco: *Judaeis quidem scandalum; gentibus autem stultitiam* (4. testua, 2. orrialdea, 1. paragrafoa, 1787. urtea).

andiki. Sarasolak *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, s.v. Larramendiren hiztegira bidaltzen gaitu. Fr. Migelek badaki erabiltzen *andiki* eta *andikidi*:

- (2) baso sagraduoneetan edateebeen Erreguiac, *andiquiac*, eta emacumiac (1,4,1, 1778).
- (3) Príncipe, edo *Andiquidi* Poderosobaten (12,5, 1788).

antxina. Sarasolak Larramendiren hiztegira eramatzen gaitu, *antzina* hitzaz ari dela. Aurkitu dugu hemen, *antxina* bezala:

- (4) *anchinaco* Filosofoen ustian (2,1,2, 1781).

atzerabide. Sarasolak 1803. urtean kokatzen du hitz honen lehen ageraldia. Hemen 1801.ean ageri da:

- (5) vsoaren egoacaz leguez Jangoicoagana ega eguiteco dificultade bagaric, edo *atzerabide* bagaric (6,2,2, 1801).

duin. Sarasolak 1802.ean kokatzen du lehen agerraldia. 1788.ean ageri da hemen:

- (6) O Ama guztiz gozoa erregutueiguizu (sic) gugaiti izangaitian *duin* Jesuchristoren aguin sariyen (11,4,3 1788).

egipide. Azkue, Diccionario Retana etabarrek diotenez, ‘obligación’ esan nahi du hitz honek, besteak beste. Fr. Migelek ‘egite, egintza’ adierazteko erabiltzen du, behin ‘egiteko’, gazt, ‘empleo, función’ esan nahi du larik. Adibidez:

- (7) (Trinidadetako bigarren persona) aric etorricodala mundubaren amaiyan viciyac, eta illac juzgueetara, emoteco bacochari sariya, edo castiguba, celan dirian bacocharen obra, edo *eguipidiac* (6,1,1, 1801).
- (8) Filosofo gentil(ac)... dacuscuz cizpuru, ta negarrez egònciriala..., icusiyagaz bacarric, pecatariyen *eguipide* deunga, eta errazoen contracoac, eta consideració bagaric eguitencituveenac (19,1,1, 1792).
- (9) celan gorpuzeko parte guztiyac lagundutendeutsen alcarri vicia, eta izaita naturala emoteco, bacochac bere empleo edo *eguipidia* daucala; alan... (begi, belarri, oin eta eskuez ari da) (8,1,1, 1787).

eraitu. ‘Eragin’ —berak *erain* idazten du— edo ‘erazi’ esan nahi du. Bainaz uste dugu okerra dela, eta *eraiteco* idatzi nahi zuela, horren parte *eraitu eraiteco* jarri du larik. Hurrengo orrialdean “sinistu *eraiteco*” dio (4,3,1).

- (11) Jangoico ta guizon eguiyazco onec padecidu eta crucebaten ilzala sinistueraitu eraiteco (4,2,1, 1787).

erautsi. Aditz hau ematen du Euskaltzaindiak (*Euskal Gramatika, Lehen Urratsak-II*, 224. or.) *diraustazu*, *dirautsut*, *dirauskue*, *zirauntsela*, eta horien antzeko adizkien partizipiotzat. Esanahia, berriz, ez du ematen, baina jartzen dituen adibideetatik ikusten da ‘esan’ dela. Pedro Pujanak ere (*Euskal-aditza (Bizkaiera)*, 126) *erautsi* eta ‘esan’ ematen dizkigu. Baina *Bizkaieraren Idatzizko Arauak, Deklinabidea eta Aditza* deritzan liburuan *irautsi* ‘replicar, reponer’ irakurtzen dugu (121. or.). Azkuek bere *Morfología Vasca-n* (706-707) **irautsi* ‘hablar a alguien’ (eta ez omen dauka “infinitivo”rik) proposatzen du, horrela zuzentzen edo aldatzen duela hitzegian ipini zuena: *erautsi* ‘insistir, hablar, ocuparse’ (*Diccionario Vasco-Español-Francés*, I, s. v.) eta *irauntsi* ‘hablar’ (*Ib.*, s. v.). *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca-n* ere biak ematen dira: *erautsi* ‘hablar, insistir, ocuparse’ eta *irauntsi* ‘hablar’, eta *irautsi* hitzaren laugarren adieran erasten da *irauntsi*-ren aldaera dela; beraz, *erautsi*, *irauntsi* eta *irautsi*.

Guzti hori irakurri ondoren eta gure testuek dakartena ikusirik eta iritzi horiekin erkaturik, bi arazo sortzen zaizkigu eta bi galdera egiten ditugu: 1. zein da gure testuen arabera *diraustazu* eta horren antzeko adizkien esangura? eta 2. zein da adizki horien partizipioa?

1. Euskaltzaindiak eta Pujanak *erautsi* ‘esan’ dela diote, *Bizkaieraren Idatzizko Arauak* liburuaren egileek *irautsi* ‘replicar, reponer’ dela *dirauskue*, eta Azkue ta *Diccionario Retana-k* diotenez *irautsi* eta *irauntsi* ‘hitz egin’ dira, *erautsi* berriz ‘insistir, hablar, ocuparse’. Fr. Migelek aditz honen sei adizki erabiltzen ditu, gehienak sarri agertzen direla, eta beti ‘esan’ adierazten dute, gure ustez. Hona hemen zenbait adibide:

- (12) Jesuchristo ilzala bacarric salvau, eta ceruco gloriya logretanda-veenacaiti; Doctrina deunguia da, eta gure Salvadore onaren injuriya andicoa: S[a]n Pablo Apostolubac *dirauscu* guztiyocaiti ilzala (4,4,2, 1787).
- (13) Ain bierrecua da fedeco articulu onen ezaueria, ce S[a]n Pablo Apostolubac *dirautse* Corintiotarai: Sinisqueraric ezpadago... (9,1,1, 1787).

Azkue eta *Diccionario Retana-k* auzi honetan *irauntsi* plazaratzeko, *Peru Abarca* aipatzen dute. Liburu hori zabaltzen badugu, ikusiko dugu *irauntsi* ‘asestar de palabra’, *dirauntsat* ‘aseso de (palabra)’ eta *nirauntzan* (sic –tz–) ‘yo asestaba de (palabra)’ (38,1). Azkuek eta biak goiko *dirauntsat* honela itzultzen dute: ‘se lo digo, le hablo’. Ikusten denez, *Peru Abarkan NOR-NORK* zena NOR-NORI-NORK bilakatu da: ‘asestar de palabra’, berriz, ‘decir’. Mogelek dakarren erdal itzulpen horri buruz Real Academia Española-k argitaratu zuen *Diccionario de Autoridades-en* hau leitzen dugu:

- (14) “Asestar. Metáforicamente *enderezar* (guk azpimarratua) contra uno y en su daño, de obra, ú de *palabra* (guk azpim.), lo

que discurre, intenta y previéne, la enemistád, ó la dañada intencion: en fuerza de lo qual se dice, Todos los tiros de la envídia se asestaron contra Fulano. Lat. Alicui perniciem machinari. In aliquem machinas dirigere" (Ik. s.v.).

Beraz, beharbada esan liteke Mogelen *irauntsi* ‘asestar de palabra’ *erauntsi* aditzaren aldaera bat izan litekeela, honek, ‘jo’, gazt. ‘golpear’ esan nahi duelarik, besteak beste.

Bestalde, *irauntsi* izen bezala ere ageri da, eta Azkuek dioenez, ‘discurso, conversación’ esan gura du. Adibidea, berriz ere, *Peru Abarkatik* hartzen du, Mogeletek Salustioren *De coniuratione Catilinae*-tik itzuli-tako pasartea honela ematen duela gaztelaniaz Azkuek: “con todos los discursos, conversaciones y reconvenciones”. Salustiok idatzi zuena hau da:

- (15) “Compertum ego habeo, milites, uerba uirtutem non addere, neque ex ignauo strenuum, neque fortem ex timido exercitum oratione imperatorios fieri” (*De Coniuratione Catilinae*, LVIII).

Pasarte hori honela itzultzen du erdarara 1804. urteko liburu batek (D. Gabriel, *Obras de Cayo Salustio Crispo*. Madrid, 1804):

- (16) “Sé bien, ó soldados, que las palabras á nadie infunden valor; y que ningun exército se hizo esforzado de cobarde, ni de timido animoso por las *arengas* de los Generales” (178-179).

Frantsesez dagoen 1964. urteko itzulpen batek (Alfred Ernout. *Saluste. Catilina, Jugurta, Fragments des Histoires*. Texte établi eta traduit par Paris, 1964) honela dio:

- (17) “Je sais bien, soldats, que les paroles ne donnent pas de courage, et que le *discours* du général ne suffit pas à faire une bonne armée d'une mauvaise, ni à transformer les lâches en braves” (119).

Mogeletek ez du pasarte hori hitzez-hitz bihurtu, honela bait dio:

- (18) “Ezaguturic daucat neure soldadubac, ez diriala verba soil ta utsacaz azcortu ta vizcortuten guizonen biotz jausitu ta macaldubac. Soldauteguija nagui, buruguiñ ta lepozalia bada, *irauntsi, jardun ta equin* guztiacaz leena queratuco da, ta iguituco ez da ecertara” (*Peru Abarka*, 203-204).

Bukatzeko, Salustioren pasarte horretan ez dago oinarririk *irauntsi* hitzak ‘conversación’ esan nahi duela baiezatzeko, bai ordea ‘discurso, arenga’ (1).

(1) J. A. Mogelen *Cristaubaren Icasbidea-n*, Villasantek prestatuan, “milla *irauntsi*, ta siñugaz” leitzen da eta paratzaleak ‘discurso, conversación’ itzuli du *irauntsi* (*Vocabulario*, s.v.). Baino *siñu* ‘muestra, burla’ baldin bada (*Vocabulario*, s.v.), eta benetan hola da, *irauntsi* ere antzekoren bat da esapide horretan, eta ez ‘discurso, conversación’.

2. Adizki horien partizipioa gure autorean ez da *erautsi*, *irautsi* edo *irauntsi*. Gero esaten dugu zein edo nola den, 13. testuan aurkitzen den esaldi baten arabera. Besterik gabe, aldatzen dugu esaldi hori:

- (19) Gordebiardeutsee criyau, criyadac fidelidadia euren vgazabai gauza guztijetan; gorde, eta gueitutendavela echecho ondasuna eureena propijoia baliz leguez veguiratutendeutseela: euquibiar-dave fidelidadia minian; verba guichi, eta biardanian bacarric eguitendavela; dalaco erremedyobat pecatu ascotaric aparteta-co: *Qui odit loquacitatem extinguit malitiam: diño Espíritu Santubac;* eta beste lecubaten *dirau*; verba asco eguitendan lecu-ban faltaco eztala pecatuba: *In multiloquio peccatum non deerit* (13,2,4, 1789).

Ez dugu dudarik egiten testu horretan *diño* eta *dirau* esanahi-kideak edo sinonimoak direla, eta *dirau* adizkiak ez duela esan nahi ‘jarraitzen du’ edo holakoren bat, ez bait du jarraitzen edo erasten Espíritu Santuak, bigarren lekuaren aipatzen den liburua, hots, *Liber Proverbiorum*, besteak, *Liber Ecclesiastici*, baino lehenago dagoelarik *Biblian*. Beste bi aldiz aurkitu dugu *beste leku baten* esapidea, eta hemen ipintzen ditugu biak:

- (20) Espíritu Santubac...: Jeremias Profeta Santubaren aoti dirauscu: Ventanabazuc diriala veguiyac, ceinzubetati sartu oidan arimara eriyoitzia: *ascendit mors per fenestras: beste lecubatem: ez eguiyu veguiratu emacumien edertasunera...: ne respicias mulieris speciem”* (16,1,2, 1789).
- (21) Au da viciyen lurra, David Erregue Santubac adietan emoten-deuscuna; ceñetan (*diño*) Jaunaren ondasunac icustia sinistu-tendavela: *Credo videre bona Domini in terra viventium: beste lecubaten* *diño*: zu zara neure esperanza guztiya...: *tu es spes mea...*” (18,4, 2, 1792).

Bi adibide hauetako lehenengoan, beraren bigarren zatian, ez dago adizkirik, lehenbizikoan *dirauscu* ipintzen duela. Aipatzen diren liburuak *Prophetia Jeremiae* eta *Liber Ecclesiastici* dira, bigarren lekuaren aitatzen den liburua, hemen ere, goiago dagoela *Biblian* besteak baino. Bigarren adibidea *Liber Psalmorum* izenekotik dago hartua, lehenengo aipamena 26. salmuari dagokiola, eta besteak 141.ari, bertan lehenbiziko zatiko adiz-kia eta bigarrenekoia *diño* dela.

Zergatik darabil *dirau* predikariak lehen aipatu dugun pasartean? Gure ustez, *diño* ez errepikatzeagatik, ez ipintzeagatik bi aldiz bata beste-tik hain hurbil: estilo arazo eta borondatea. Badaki horrelakorik egiten, eta, hain zuzen *uerba dicendi* direlakoetan hori gertatzea ez da gauza arraroa. Hona zenbait adibide:

- (22) elduzan Centurio soldaduba aren Divina Magestadiagàna erre-gutu, eta *esateutsala* gaurco Evengeliyoac *dirauscum* leguez (3,1,2-3,2,1. Ierroa, 1786).
- (23) Escritura Sagradubac *dei eguitendeutso* Espiritu Santubari Izen ascogaz: *Deitutendeutso Paraclito...* *Deitutendeutso Iturri vici...* *Esatendeutso Espiritu zuzen...* *Dei eguitenyaco;* Pobre guztiyen Aita (6,4,2, 1801).
- (24) San Juan Damasceno gloriosoac, eta Santo Thomas neure Maesubac *esatendeuscube*, oraciñoia dala gueure entendimēntuba Jangoicoa gana jasotia...: Aita San Basilio, San Gregorio, eta Santa Theresa neure Amac *diñue...*: Aita San Agustin gloriosoac *diño...*: Azquenic santu guztiyac *datoz esatera...* (10,1,2, 1787).

Badago bestelako hitz alternantziarik, esaterako *gura ta nahi, eroan ta ohi* pareekin.

Ondorio bezala, esan dezagun *diraustazu* eta antzekoen partizipioa, pasarte horren arabera eta bertan oinarriturik, **iraun* dela. Ezaguna da aditz hau beste esanahi batekin: egoera berean jarraitu, egoera jakin bat eutsi. *Hauta-Lanerako* hiztegitik hartu dugu azalpen hori, eta Sarasola berak bertan dirauskunez, laguntzailerik gabe ere jokatzen da, “hirugarraren pertsonako nork-dunak izan ezik, gutxi erabiltzen” direla besteak. Ezaguna da baita ere, multzo txiki bat osatzen duten beste zenbait aditzekin, NOR-NORK egitura jarraitzen duela (Ik. EGLU-II, 340-343; P. Lafitte. *Grammaire Basque*, 411. z.).

Baina, eta hemen dugu goian esan dena baieztatzeko ikusten dugun bigarren oinarria, NOR-NORI-NORK darabil behin Juan Antonio Mogelen. Eta, hain zuzen, lehen plazaratu dugun *diraustazu* eta abarren senidea ta aurridea da aurpegiz: *dirautsa(n)* ‘rauten dio’ da adizki hori. Irakur dezagun Mogelen testua:

- (25) Adigarri bat. Euscaldun guzti guziac..., dauquee Aita Palacio-sen enzutia. Gure zori chaarrez, zaartu da gaissua; jausi jacozi gorputzeco indarrac, ta bacarric dauca zoli zolija, Jangoicuac emon eutsan min garbi ta verba eder asco atera dituzana. Uste dot, orain dino icusico dabeela, ez oñez, ez zaldiz ibili danian, guizonen batzuben besuetan daruela Eleissara San Juan Evangelistia erauten ebeen leguez, arnasiac *dirautsan* artian iracas-teco Ceruco vidia. (*Confesino Ona*, 1803, 293).

Adizki hori bera, hots, *dirautsa*, aurkitzen dugu Mogelen *Peru Abarakan* behin baino gehiagotan, ‘esaten dio, diotso’ adierazteko:

- (26) Sagu bi celai baten / Egozan gauzac esaten; / Bata zan baso-cua, / Bestia echequa. /*Dirautsa* ác oni; / Gurozu neugaz etorri? (96,4. paragr.).

- (27) *igura dozu, Democles, dirautsa* Erreguec, onembeste atseguien emoten badeutsu nere vicitza dontsubac, icusi ceure buruban, nasan edo ez benetan zorijonecua? (215.3. paragr.).

Autore berberak aditz-joko berbera darabil, liburu batean —*Peru Abarka*— ‘esaten dio, diotso’ adierazteko, eta beste batean —*Confesino Ona*— ‘irauten dio’ adierazteko. Bigarrenaren partizipioa *iraun* dela ez du inork zalentzan ipinik. Bada lehenbizikoarena ere, Fr. Migelen testuan irakurtzen den *dirau* ‘dio, esaten du’ adizkia kontutan hartzen dugula, *iraun* dela esan daitekeela uste dugu. Baina ez Mogelek bakarrik, Pedro de Astarloak ere erabiltzen du *dirautza* ‘irauten dio’ adierazteko; eta *dirautze* ‘irauten die’:

- (28) pagadu beguit bacotzac deuztan zor gustija lau, bost, edo sei urte barru, au da, vicitziac *dirautzan* artian (*Urteco Domeca Gustijetaraco Verbaldi Icasbidecuac*, I, 225, 15. lerroa).
- (29) ain sendo batu, eta lotuten dituz Sacramento onec senar emastiak, ce ecin inundic bere urratu, ez soldatu leiteque locarri au, vicitziac *dirautzen* artian, edo bata, edo bestia il artian (*Ib.*, I, 246, 1. paragr., 17. lerroa).

Bukatzeko, baldin *deutsa/deutso* eta bere senideek *EDUN badute errotzat, baldin *diotso* eta bere aurrideek *IO —Azkuek bere *Morfologia Vasca-n* (707, 2. paragr.) *ION aurkezten du— badute oinarritzat, zergatik *dirautsa* ‘esaten dio, diotso’ eta bereek ezin dute izan IRAUN beren partizipiotzat jatorriz edo analogiaz?

erbestetu. Sarasolak Larramendiren hiztegira bidaltzen gaitu. *Desterradu* hitzaren sinonimo bezala ageri da hemen:

- (30) Evaren Hume desterraduboc, edo *erbestetuboc* (11,3,1, 1788).

eretxi/eritxi. Behin ageri da *eresten*, beste guztietañ *derichat*, *erichan* etab.:

- (31) neque andizat dauco seme, eta alaba deungaro azijac, bere guraso, eta nagosijagoari eranzunbagaric egotia: gatch *eresten-deutso* pacientiyaric eztaucanari, deungaro eguitendeutsanari parcatutia (17,2,1, 1789).
- (32) edozein diligencia *derichat* izango dala laburra aurquituteco ain gauza pare gavecoa (1,1,2, 1778).

eroan/joan/ohi. Ohizkotasuna adierazteko *ohi* erabiltzen du gehien-gehienetan, bost bat aldiz aurkitu dugularik *eroan* eta bi aldiz *joan*.

- (33) Lelengo veguiratutebat(ec)... ez *oidau* eguin calteric (16,3, 1789).
- (34) guizon gazte, eta emacume libertade larreguicoac... *esandaroez* barre eraitearren lagunai onelaco verba nasaiyac (15,2, 1789).
- (35) enzuten dagoz lagunac gustoz, eta aoti ura dariyoela (*esandoiyan leguez*) (15,4, 2, 1789).

eskubide. Gure testuetan beti (2) ‘ahalmen, potestas’ esan nahi du, eta ez ‘drexto, ius’. Aizkibelet bere hiztegian (*Diccionario Basco-Español*, 1186 or.) dakarrena, Astarloan oinarritzen dela (*Urteco*, I, 121), oso ongi dagokio Fr. Migelen *eskubide* hitzari, honela bait dio: “facultad, poder, potencia o virtud para hacer alguna cosa”. Orain ipintzen ditugu karmeldarraren zenbait pasarte:

- (36) Jangoicoac bere *escubide* neurribagacoagaz mirari andibat egui-teebara... jazozan au (4,2,2, 1787).
- (37) Elessiac daucala potestade, edo *escubidia* Jesuchristo gure Redentoriac emonic parcatuteco pecatubac (8,3,1, 1787).
- (38) Celebretanditubenac... conversaciño deshonesto deungaac, especialmente... galarazoteco *escubidia* dauqueenac, eguitendave peccatu mortala (15,4,1, 1789).

goimen. Ez dugu aurkitu hiztegietan, eta bere esanahia ‘triunfo’ da.

- (39) Alejandro Macedonio Emperadore andiya(c)... icusieban ver tan cein ondo esplicauric largacituban guizon onen excelencia, victoria, triunfo, edo *goymenac* Homero erichan Predicadore andiyac (2,1,1, 1781).

(2) *Eskubide* hitza asko erabiltzen da gaur egun ‘deretxo’, lat. ‘ius’ adierazteko. Baino, uste dugunez, ‘ahalmen’, lat. ‘potestas’ adierazteko erabiltzen zen ia beti bizkaierazko testuetan behinik behin 18. mendeko amaieran eta 19.aren hasieran. Guk ezagutzen ditugun J.A. Mogelen bi ez beste pasarte guztietan nahikoa da ‘potestas’ bihurtzea eta ez dago ‘ius’ itzuli beharrik. Esaterako, Angel Zelaietak (*ASJU*, 1978-79, 135) ematen digu ‘derecho, facultad’ eta bidaltzen gaitu *Peru Abarkara*, 107: orrialde horretan bi aldiz ageri da *eskubide* eta nahikoa da ‘potestas’ itzultzea. *Peru Abarkan* bertan, latinezko testuak euskararatzen direla, aurkezen da berriz ere behin da berrirro. Tacitus-en testua bihurtzen delarik eta 108. orrialdean *escuvide* idazten da, latinez ‘auctoritas’ dagoelarik eta frantseseko itzulpen batetik (lehen aipatu duguna, hots, A. Ernout, *Saluste...*, 33) ‘autorité’ dioelarik. Cicero-ren pasartean eta 213. orrialdean ‘*escuvide* andi bagaric’ irakurzen da, latinez ‘privatus’ dagoelarik eta frantseseko itzulpenak ‘simple particulier’ dioelarik. Titus Livius-en esaldian eta 217. orrialdean “muga, *escubide* ta leguiac” ipintzen da, latinez guzti horrendako ‘iura’ dagoelarik eta frantsesez ‘droit’. Mogel beraren *Confesino Ona-n* eta 18 or.an (1897.urteko agerpenean) *eskubidea* ‘potestas’ dago, eta 56-58. or.etan bost aldiz ageri da *eskubidea* ‘ius’, baina behin bakarrik balitz bezala, denek gauza bera ukitzen baitute. Villasantek paratutako egile beraren *Cristaubaren Icasbidea-n* eta 66.atalean (*Vocabulario*, s.v.) nahikoa litzateke ‘potestas’ itzultzea. Añibarren *Escu-Librua-n* (121,1 eta 125,8 orrialde eta paragrafoetan) *escu-bidea* eta *escu-vide* leitzen dira eta biak ‘potestas’ dira. Diccionario Retana-n esaten da *eskubide* ‘derecho, poder, facultad’ dela, baina bertan aipatzen den Astarloaren pasartean ez da ‘derecho’, bai ordea ‘poder, facultad’, lat. ‘potestas’, Aizkibelet bihurtu duen bezala, pasarte bera hartu duela oinarritzat. Bermeon 1822. urtean predikatutako sermoi batean, Alfonso Irigoieneak argitaratutakoan (*Euskera* (1960), 354. or.) “*escubide* edo poderiyo andijagaz” dugu, beraz ‘potestas’. Gaur egun ere ez dago ahaztua ‘potestas’ adierarekin, eta hor dugu adibide bat Liturgi Euskaratziale Taldea-ren *Itun Berria-n*: “bekatuak barkatzeko *eskubidea*” (Lucae, 5,24).

gura/nahi. Erruz ageri dira biak, baina *gura* sarriago *nahi* baino. Esaldi batean biak azaltzea gerta daitekeen gauza da, estilo arazoa, eta hitza ez errepikatzeagatik.

- (40) daucazuzan falta, edo imperfecciño biyetaric, cein *naidozu* quendudaizudan, gorputzecoa, ala arimacoa? Cein *guradozu*, gorputza osatu, ala entendimentuba arguitu? (11,1,1, 1788).
- (41) Adanen Seme, Alabaac mudetandirian leguez egunian egunian,... egunbaten *nareztavena*, urrengoa *guradau* (4,4,1, 1787).

itxi/larga/zarratu. ‘Utzí’ adierazteko *itxi* erabili ohi du, behin bakarrik aurkitu dugularik *larga* ‘utzí’. Behin *itxik* ‘hertsi, hetsi’ esan nahi du, *zarratu* bakanen bat ere ageri dela horretarako. Bestalde, *zarratuk* bi bat aldiz ‘eduki’, lat. ‘contineo’, gazt. ‘encerrar’ esan gura du.

- (42) ordibatec nequez *ichicodeutso edate larreguijari* (17,2,1, 1789).
- (43) icusieban cein ondo esplicauric *largacituban* guizon onen (Alexandro Mazedonio Enperadorearen)... triunfo, edo goymenac Homero erichan Predicadore andiyac (2,1,1, 1781).
- (44) *zarraturic*, edo veguiyac ichiric ezin ibilguinaitez (16,1,2, 1789).
- (45) amar mandamentu santu oneec (esatendogu) *zarratutendiriala*, edo aurquietandiriala mandamentu bitan (17,1,1, 1789).

izaite. Izen bezala ‘Izaite’ erabiltzen du eta ‘izaera’, lat. ‘natura’ adierazten du, ‘existentia’ ere adieraz dezakeelarik, gure ustez.

- (46) ezlizatequez (Demoniñoez ari da) viurtuco Jangoicoagana euren naturaleza, edo *izaitia* mudaubagaric (4,4,1, 1787).
- (47) Dalaco (eguzkiaz ari da) arguibat bere lelengo instanteric eta *izaiteric* inos iluntasunic euqui eztavena (2,2,2, 1781).

jaiakera. Bere esanahia ‘jaiotza’ da eta Nikolas de Zubiak ere baradabil (ASJU, XVII (1983), 150,1. paragr.).

- (48) Maria Santissima Ama maite ori, izanzala Doncella, ta Virgina garbiya, resplandore, eta graciayaz betia jaiyo baño leen Seme eguiyazcoa, *jaiyaqueran*, jaiyo ezquiero, ta beti Virgina dala (4,1,1, 1787).

luzabide. Azkuek Astarloaren *Urteco-tik* hartu du, eta ‘demora, dilación’ dela dio. Gure testuetan ‘continuación, prolongación, prosecución’ edo holakoren bat.

- (49) Eguitendave pecatu mortala araco personaac, ceinzuc verba loiyac, edo conversaciño deshonestoac enzuten egonic, emotendeutsen *luzabidua* euren itaune, eta eranzutiaquin jarraitudeyon bere conversaciño deunguiari, eta esandaizan beste verba deunga gueiyago (15,4,1, 1789).

milliño. ‘Milioi’-ren aldaera da.

- (50) O eta celaco graciyaac... emonbiardeutsagun Jangoicoari, guri eguin deusuncun mesede andi miragarriyagaiti...: Aimbeste milla *milliño* arima ixtebitubala... bere Eletxara ecarribagaric (7,4,3, 1801).

ogipee. ‘Eskupe, morrontza’ esan gura du.

- (51) Ugazabaac, eta gurasoac examinauco dave, nola iracatsideutsen euren *oguipiean* (sic —ie—) dagozanai (1,2,2, 1778).

patari. ‘Abere, animalia’ hitzen esanahi-kide izan daiteke, gramatika estu-estu hartzen bada; bestela, ‘basapiztia’ edo.

- (52) Aurquietandira animaliya, edo *Pataribazuc* gogorrac, crubelac beti mendi, ta Basuetan vici, ta dabilzanac...: Leo, Tygre, Otso, ta beste onelacoac; beste bazuc dagoz chiquitaric echian azi, erraz escura ecandutendirianac...: dirian leguez Chacurrac, Idi-yac, Beyyac (sic —yy—), eta beste onelacoac (18,2,1, 1792).
- (53) Baña celan izanleiteque au (Adanen seme-alaben viztutzeaz ari da); valdin gorpuz bazuc *Patariyac*, beste bazuc arrainac, eta arrac janbaditubez...? (9,1,2, 1787).

pixtiya. Testuetan beti —bi aldiz aurkitu dugu eta biak testu berean— ‘har’, lat. ‘vermis’ deritzon animaliaz dihardu.

- (54) Azartuten da christinu galduba Demoniuac opadeutsan gozotasuna artutera, eta gueratutenda concienciyaan *pixtiyà* crubelbat, beti vildurtutendavena: *dulzedo* (sic —z—) *illius vermes* (1,4,2, 1778).
- (55) Vein jaiyo ezquero eztala ilten pecatuben *pixtiya* galdubau diño S[an] Bernardino gloriosoac, veti daguala viyotzari oraturic: *Hic est vermis, qui non moritur; haesit firmiter, nequaquam evelendum* (1,5,1, 1778).

prestaera. Azkuek *prestamen*-era bidaltzen gaitu, eta han ‘disposición, preparativo’ dio. Testuetan ‘preparación, disposición’ bihurtuko genuke guk.

- (56) arima justu, edo graciyazco estaduban dagozanen artian jazotenda ondoen Santuben comuniñoia, *prestaera* obia dauqueela-co progimuen obra onac, eta Jangoicoen doe miragarriyac artu, edo errecivietaco (8,21, 1787).
- (57) Eta parcatutene eztirian pecatubac, edo parcatu ezin leizanac... epta potestaderic Elessa Santan eztagoalaco; ezpada eurac *prestaerabagaric* datozaalaco (8,3,2, 1787).

sarzera. Ez dugu aurkitu hiztegietan, eta ‘(eguzkiare) sartzea edo itzal-teza’ esan nahi du.

- (58) Eguzquiyaren *sarcera* icusicodozu sarritan daguala odoi balz ilumbat (5,4,2, 1787).

terziyo. Ezin dugu asmatu hitz honen esanahia. Azkuek, *Peru Abarkan* (151, 27. lerroa) oinarriturik, bere hiztegian dioenez, *tertio* ‘término medio, cantidad regular’ da. Villasantek (J.A. Mogel. *Cristaubaren Icasbidea* (3). Ik. *Vocabulario*, s.v.) hori bera dio, eta ‘medida’ erasten du. Pr. Bartolomek (*Icasiquizuna*, I, zatia, 271-274) erabiltzen du ‘estado, situación’ edo holakoren bat adierazteko, eta baita ‘medida (?)’, raya (?), punto (?)’ adierazteko ere. Juan Ajuriak, c. 1824. urteko prediku batean *tercijo-tercijocoac* dio, eta ‘antzekoak, modu batekoak, berdintsuak’ esan nahi du beharbada. Fr. Migelek behin darabil eta ‘modu, egoera’, gatz. ‘estado, modo, situación’ edo holakoren bat adieraz lezake. Hona Fr. Migel eta Ajuriaren testuak.

- (59) (viztu ondoren) guztiyac (izango dira) edadebatecoac, ogueta amairu urtecoac, Jesuchristoren irudicuac...; ... guztiyac izango dira ogueta amairu urte *terciyocoac*; ain modutaco gorputza euquicodau bacochac, celacoa euquicoeban, eldubaliz ogueta amairu urteetara naturalezaren falta..., edo beste nequebagaric (9,4,1, 1787).
- (60) lurrecoen artean (animaliez ari da) daode chimio casta batzuc, gure *tercijo* *tercijocoac* (Juan Ajuria, 3. testua, 6,5).

ulertu. Ez da ageri testuetan, bere ordez *aditu* erabiltzen delarik.

- (61) Irudibategaz *adituco* dozu obeto (3,4,2, 1786).

zelan/nola. Lehenbiziko testuan (1778. urtekoa) *nola* ageri da beti, bigarrenean (1781) behin ikusi dugu *nola* eta bi aldiz *zelan*, hurrengoetan (1786-1792) *zelan* ematen da bakarrik.

- (62) icasicitubaneco (S. Ramon Nonatoz ari da) escolaco lelengo letraac, *nola* eracutsieban ain devociño andiya Eleizaco gauzeetara...; galarazo naieutsan bere guraso jaquituriyabagueac ceruco vide zuzenau (2,3,1, 1781).
- (63) *celam* zan (S. Ramon Nonato) guraso noble, eta aberatsen semia... Eta alam cuidado andiyagaz acieban bere Aytac (2,3,1, 1781).

(3) Liburu honetan, 69. atalean, “*tercio*, edo ereduban” leitzen dugu, eta ‘arau, era, modu’ izan liteke; 87. atalean, berriz, “*tercio*, edo eredura”, esapide hori ‘arabera’ itzul litekeelarik, beraz *tercio* ‘arau, era, modu’ hor ere. Behin baino gehiagotan ageri da *ereduban* (Ik. 33, 101, 164. ataletan) eta ez letorke gaizki horren ordez *arabera* ipintzea. Esan dezakegu, bada, *terzio*, *eredu* eta *arau* adiera antzekoak direla.